



2. ildo: EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK 6-15 URTE ARTEKO UME ETA GAZTEENTZAT

1. HARTZAILEAK

- Eskatzailea eta laguntza jasoko duena, adingabekoaren legezko erantzulea izango da eta biak, errenta aitopenean, elkarrekin agertu beharko dira.
- Dirulaguntzaren helburua, euskalduntze ikastaroetan diharduten Getxoko gazteen eta umeen (6tik 15 urtera bitartean, **2006tik 2015era bitartean jaiotakoak**, biak barne) matrikula ordaintzen laguntzea da.

2. IKASTAROAK

Diruz lagunduko direnak:

- Ume eta gazteentzat bereziki pentsatutako euskalduntze ikastaroak.
- Euskaltegi homologatuetan burututakoak edo umeentzako euskaltegietan burututakoak.

EZ dira diruz lagunduko:

- Klase partikularrak.
- Eskola orduetan burutzen diren ikastaroak.
- Autoikaskuntza ikastaroak.
- Familia barnetegiak.
- Desplazamenduak.
- 45 ordu baino gutxiagoko ikastaroak.

3. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

3.1.- Dirulaguntza eskaera

Dirulaguntza eskaera - Euskara Zerbitzua izeneko inprimakia beteta (ikus eranskina), kontu korrontearen zenbakia (**IBAN kodeari dagozkion 24 digitu**) jasota utziz. Eskabidea sinatzen duena, errenta aitopenean familia-unitatearen barruan egon beharko da eta ume edo gaztearen legezko erantzulea izango da.

3.2.- Euskaltegi matrikularen ordainagiria zigiluarekin.

3.3.- Azkenengo Errenta Aitorpenaren fotokopia. Eskatzaileak errenta aitopena ez badu zertan egin, hori egiaztatzen duen Foru Ogasunaren ziurtagiria.

3.4.- Asistentzia egiaztatzea

Eskatzaileak, gutxienez, euskaltegian **hartutako eskola-ordu guztien %85era joan dela egiaztatu** behar du. Horretarako, egiaztagiria honako hauek jasoko ditu: maila, ordutegia, klase orduak orotara, matrikularen zenbatekoa, asistentzia eta egindako urratsak. Udalak ez du jasoko eskatzaileak euskaltegian egindako hutsen frogagiririk.

3.5.-Zerga betebeharrak egunean izatea

Eskatzaileak ziurtatu behar du zerga betebeharrak ondorengo erakundeekin egunean dituela:

3.5.1.-Ogasunarekin

Zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen **Ogasuneko ziurtagiria aurkeztu beharko du** eskatzaileak. Ziurtagiri hau, dirulaguntza eskaeran **AITORTZEN DUT atala beteta ordezkatu ahal** izango du.

3.5.2.- Gizarte Segurantzarekin

Getxoko Udalak kontsultak egin ahal izango ditu, dirulaguntza eskatzaileak Gizarte Segurantzarekin zorrik baduen ikusteko, **baldin eta interesduna datu horiek kontsultatzearen aurka agertzen ez bada**; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

3.5.3.- Getxoko Udalarekin

Getxoko Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzaileak zorrik ba ote duen Getxoko Udalarekin. **Eskatzaileak Udalarekin zorren bat badu Udalak interesdunari jakinaraziko eta zor hori ordaintzeko (edota zatikapena eskatzeko) epea emango dio.** Egoera epearen barruan zuzenduz gero, Udalak interesdunaren aldeko dirulaguntza ematea erabakiko du. Zuzentzen ez badu, ordea, Udalak ukatu egingo dio dirulaguntza, ez duelako onuraduna izateko baldintzetako bat betetzen.

4. ORDAINKETA

Ikus oinarri orokorretan dioena.

5. AURREKONTUA

Ikus oinarri orokorretan dioena.

GEHIENEO DIRU SARRERAK

Dirulaguntzak eskatu ahal izateko baldintza hauxe izango da: eskatzailearen diru-sarrera likidoek ondorengo formula aplikatuz ateratzen den kopurua ez gainditzea:

FAMILIAN ZENBAT KIDE	GEHIENEO DIRU-SARRERA LIKIDOAK 2020
1	36.575 €
2	47.195,98 €
3 edo 3tik gora	51.944,99 €

- Urteko diru-sarrera likidoen kalkulua, familia unitate bakoitzeko kide guztiak jasotzen dituzten diru-sarrera guztiak kontuan hartuz egingo da.
- Diru-sarrera hauek azkeneko errenta-aitorpenean adierazten direnak izango dira.
- Eskatzaileak errenta-aitorpena egin behar izan ez badu, Haziendaren ziurtagirian jasota dauden diru-sarrerak kontuan hartuko dira.

FAMILIA UNITATEAK

Famili unitateak hauek dira:

- ⇒ 26 urte baino gehiagoko pertsonak: diru-sarrerarik izan ez badute, haien gurasoekin bizi arren.
- ⇒ 26 urte edo 26 urte baino gutxiagoko pertsonak: diru-sarrerak izan badituzte, haien gurasoekin bizi arren.
- ⇒ Errenta-aitorpena era indibidualean egiten dutenak.
- Benetako egoera ekonomikoa okerrera aldatu izan balitz egiaztatu beharko da eskabidea egiterakoan.
- Bekak esleitzerakoan, Oinarritzko Errenta jasotzen duten familiak lehenetsiko dira.